

EUSLE METODOLOGIA

Ariketa erraz bat lankideekin euskaraz mintzatzen laguntzeko

 **HIZKUNTZA** / Maider Iantzi Goienetxe

Bi hilabeteko esperientzia labur eta sinplea izan arren, nabarmena da Eusle metodologiak duen eragina. Hori erakusten dute hamahiru lantokitako testigantzek. Batez beste euskararen erabileran 15,3 puntuko igoera neurtu dute ariketa bukatu eta berehala (%60,8tik %76,1era igaro dira). Hiru hilabeteko atsedenaldiaren ondotik, nahiz eta pixka bat jaitsi, 10,6ko gorakadari eutsi diote. Ohitura aldaketa dezente finkatu da, hortaz. Gainera, lankide guztiek egiten dute euskara gehiago, bai aitzinetik nolabaiteko ohitura zutenek eta bai euskaraz hagitz gutxi edo batere solastatzen ez zirenek.

Aldahitz proiektuaren tresna nagusia da Eusle metodologia. Hizkuntza ohituren aldaketak nola gertatzen diren aztertzen duen ikerketa-ekintza da Aldahitz. Erdararik euskarara aldatzeko prozesuak nola erraztu ikertzen du. Pello Jauregi EHUKo irakasleak zuzentzen du, eta Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterreko ikerlari-teknikariak koordinatu. Azken horrek bere bulegoan hartu du GAUR8, Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean, egiten ari diren lana azaltzeko.

ALDAKETARAKO GAKOAK

Duela zazpi urte abiatu zen egitasmoa, kezka batetik: posible da erdaraz solasean hasi den bikote bat euskarara pasatzea? Halako bikoteak aurkitu eta aztertu zituzten, eta aldaketa errazteko ekarpenik egiterik bazuten galdetu zioten beren buruari. Hurrengo pausoa lantokietan eman zuten, erdaraz hasi eta euskaraz mintzatzera igaro diren lankideak topatuz eta hori nola egin duten ikertuz.

EHU eta Soziolinguistika Klusterraz gain, bertze sei kide ditu Aldahitzek: Ahize-AEK, Artez, Elhuyar, Emun, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lakuako Gobernua. Sare horrek premia zehatzak plazaratzeko eta kasuak topatzeko balio izan die.

Kasu horiek aztertuz, aldaketarako gako batzuk identifikatu

Behin hizkuntza ohitura bat hartzen denean aldatzea hagitz zaila izaten da. Edo ezinezkoa. Zenbat aldiz aditu ote dugun hori... Baina Eusle metodologiarekin egindako esperientzien emaitzek bertze zerbait erakusten dute, argi eta garbi: baldintza egokietan, posible da gaztelaniaz mintzatzen ziren lankideak euskarara pasatzea.



zituzten. Adibidez: hurbileko lankide bat egoten zen beti euskaraz mintzatzen zena eta bere hizkera egokitzen zuena jakinda lagunak ez zuela ongi ulertzen. Hori konfiantza giroan gerta-

tzen zenez, hanka sartzea, ikaslea eta eguneroko praktikak aldatzea posible zen.

«Goazen saiatzera halako harremanak artifizialki bultzatzen. Goazen metodologia bat

diseinatzera baldintza egokiak sortzeko», erabaki zuten. 2012an jaio zen Eusle eta 2013tik 2016ra hamahiru lantoki publiko eta pribatu aldatu ditu. Tresnak bizi-bizi segitzen du eta esperientzia gehiago izanen dira. Bi liburu kaleratu dituzte metodologia azalduz eta datu eta testigantzak emanez, bat 2015ean eta bigarrena aurten. Horiek baliatuz, batzuek tresna beren kasa aplikatu eta beren bertsioak sortu dituzte.

BALDINTZA ETA ARAUAK

Zenbat eta bertsio eta esperientzia gehiago, hobeki da Pablo Suberbiolarentzat, baina zorrotza da Eusle metodologia zer

den eta zer ez azaltzean. Liburuetan kaleratutako emaitzak metodologia honenak dira. Eskatzen dituen baldintza eta arauak bete dituzten lantokieta-koak. Euslen parte hartuko duten lantaldeek 10 eta 30 lagun bitarte izan behar dituzte eta denek ulertu behar dute euskara. Gainera, sail naturala behar du, egunero maiz egoten diren kideez osatua. Hauek beren borondatez eta erabakiz parte hartu behar dute.

Astero-astero galdetuko diete lankide guztiei dinamikarekin segitu nahi duten ala ez. Ez badaude gustura, edozein unetan utz dezakete. Horrek konfiantza ematen diela dio Suberbiolak. Hogei laguneko taldea bada, aitzinera jarraitzeko gutxienez hamabostek nahi izan behar dute. «Aldekotasun handiko talde bat bilatzen dugu. Ez bada hala, ez gara konbentzitzen saiatzen. Hotzak gara horretan, hoztasunak batzuetan eragin oso onak dituela uste dugulako. Gaia beraien mahaira eramaten du: beren lantokia da, beren egoera eta esperientzia, onerako eta txarrerako. Hori indartzea ona da; bestela soilik euskara teknikariaren ardura dela dirudi. Eta denena da».

EUSLEA

Euslearen figura da dena mugitzen duena. Esperientziak irauten duen bi hilabeteetan taldea osatzen duten kide guztiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartzen du Eusleak, idatziz zein ahoz, baina bereziki ahozkoari ematen diote garrantzia metodologian. Bost lankideko eusle bat, hori da proportzioa. Taldekideek aukeratzen dituzte eusleak, euskaraz erraz moldatzen diren lagunen artean. Eusleak ez direnek ere hartzen dute ardura bat: erdaraz egiteko ez eskatzea.

Azken batean, metodo hau erabiltzen du lantalde batek bere burua euskaraz egitera behartzeko. Lurrikara txiki bat sortzen da eta eragina lantalde osora zabaltzen da, baita ondoko sailetara ere, hauek zerbait mugitu dela ikusten baitute.

Lankideen arteko euskararen erabileraren hiru neurketa egi-

Metodo hau erabiltzen du lantalde batek bere burua euskaraz egitera behartzeko. Lurrikara txiki bat sortzen da eta eragina lantalde osora zabaltzen da, baita ondoko sailetara ere

Eusle aitzakia da. «Egoera zehatz batean nolako aldaketek egiten dute posible nik zuri euskaraz egitea irrigarri sentitu gabe?». Halako planteamenduei ematen die bide

15,3

puntu igotzen da lantokiko euskararen erabilera esperientzian zehar. Amaitu eta hiru hilabetera igoera horretatik 10,6 mantentzen da.

ten dira: lehena dinamika has-tan, bigarrena bukatzean, eta az-kena hiru hilabeteko atsedena-ren ondotik, ohitura berriak zenbat finkatu diren jakiteko.

ZERK EGITEN DU ZILEGI ALDATZEA?

Aipatu dugu jendeak liburuak irakurri eta Eusleren bere ber-tzioak sortu dituela. Irakasle ba-tzuek ikastetxeetan aplikatu du-te. Pablo Suberbiolak agertu du Eusle lantokietarako diseinatuta dagoela eta sinplea izan arren gogoeta aunitz dagoela gibe-le-an. Erantsi du hasita daudela metodologia honen egokitzap-en bat sortzen hezkuntza mundurako.

«Eusle metodologiak balio du aitzakia bat emateko erdaraz egiten nionari euskaraz egiteko. Zentzua ematen dio eta posible egiten du. Aukera ematen dio jokaera berri bati. Bestela zer de-la-eta aldatu? Zerk egiten du zi-legi?». Soziolinguistika Kluste-rreko ikerlariak dio halako galderak direla interesgarriak, eta ez mantra bat bezala aditzen dugun «ezagutzak aurrera egi-ten du, baina erabilerak ez neu-rri berean» errepikatzea. Eusle aitzakia da. «Egoera zehatz bate-an nolako aldaketek egiten dute posible nik zuri euskaraz egitea irrigarri sentitu gabe?». Halako planteamenduetara eramaten gaitu Euslek. Txip aldaketa in-portantea da.

«BATERA JOANGO GARA»

Taldearen babesa ere ematen du, ikuspegi kolektibotik egiten delako, «batera joango gara», erabakitzen dute lankideek. Kontent dira tresnaren sortzai-leak zein probatu duten langile-ak. Asmo batekin sortu zen eta betetzen du: hala erabakitzen duen jendeari euskaraz egitea errazten dio. Bitxikeria gisa, lan-toki batean hain gustura zeuden lortutako hobekuntzekin ez zu-tela atsedean hartu nahi izan. Bestalde, galestar ikerlari bat ja-rraitzaile bihurtu zaie eta tesia egiten ari da Euslerekin.

Suberbiolak adierazi du badu-tela hipotesi bat: harreman sa-konetan gehiago kostatzen da hizkuntza ohiturak aldatzea, jo-koan dagoena aunitz delako. Al-

11,4

Horixe da euskarazko ohitura bat finkatzea lortu den lankideen arteko elkarriketen ehunekoa, bai esperientzian zehar eta baita berau bukatu ondotik ere.

de horretatik, lan mundua abia-puntu ona da, hain sakonak ez diren erlazioetatik hasteko.

ULERRIZKETA ETA ULER-SAIOAK

Euslez gain, bertze bi metodolo-gia prestatzen ari dira Aldahitz proiektuan: Ulerrizketa eta Uler-saioak. Hauek ere lan mun-durako dira. Hirurekin sistema oso bat eskaintzea da asmoa. Ur-

te amaierarako txosten bana ar-gitaratuko dute Ulerrizketa eta Uler-saioak metodologiekin eta 2018an aplikatzeko moduan egonen dira.

Eusle erabili ezin den kasueta-rako dira biak. Ulerrizketan, lan-kide bat dagoenean euskara gai-tasun baxuagoa duena inguruko lau lagunek konpro-misoa hartzen dute hari euska-

raz egiteko ulertzeko moduan. Uler-saioei dagokienez, euska-raz ez dakiten edo hagitz gutxi dakiten bizpahiru lankide dau-denean aplika daitezke. Oina-rrizko mailara iristeko metodo bat eskaintzen diete.

Ondoko orrialdeetan Eusle es-perientzia bizitu duten bi lantal-deren testigantzak bildu ditugu. Oñati eta Iurretako udaletakoak.



Pablo Suberbiola, GAUR8rekin solasean. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

«Taldea naturala denean eta konpromisoa hartzen duenean, ederki doa ariketa»

Oñatiko Udaleko hamabost langilek aplikatu zuten Eusle metodologia, 2015eko udazkenean. Udaletxeko lehen solairuan, elkarren ondoan dauden eta harremana duten Idazkari-tza eta Kontu-hartzailetza sailetakoak ziren.

«Zuek asko hitz egiten duzue euskaraz», erraten diete kanpotik. Egia da. Denek dakite, ez dago arazorik edonorekin mintzatzeko, eta hala lan egiten dute, baina barreneko harremanetan gaztelaniara pasatzeko dezente-ko joera zegoen eta hori aldatze-ko esku hartzea erabaki zuten.

«Euskararen inguruko erabaki batzuk hartuak ditu Udalak, euskara tresna izateko ahal den guztian. Eta ahal den guztia as-

PASKUAL ELUSTONDO XABIER ZABALETA

OÑATIKO UDALA

Eusle metodologiak laguntzen du, baina ez du lortzen joera erabat aldatzea. Gauza gehiago egin behar dira. Horixe, Oñatiko Udaleko langileen ondorioa.

Xabier Zabaleta eta Paskual Elustondo, Oñatiko Udaleko lankideekin.
Juanan RUIZ / ARGAZKI PRESS

ko da. Erabaki politikoak zure jarduerara eraman behar dituzu», esplikatu du Paskual Elustondo kontu-hartzaileak. Udal hau batez bestekoa baino euskaldunagoa da, baita Gipuzkoa mailan ere. «Langile mordoxkatxo bat naturalki euskaraz aritzen gara, ez dakien herritarren bat etortzen zaigunean kenduta. Baina ahal den guztia, %100, ez da lortzen».

Erdararako joera dutenak eusle
Paskual eusle naturala da. «Denekin euskaraz egiten dut beti eta denak euskaraz zuzentzen zaizkit». Hortaz, metodologiak ez dio pertsonalki eragin; kideengan ikusi ditu aldaketak. Eusle naturalaz gain, programatua ere izan da, baina, zinez, konpromisoa gaztelaniarako joera zutenek hartzea nahi izaten zuten, bertzela ez zelako alderik sumatzen. «Beraientzat bai zen esfortzu kontziente bat. Ingurukoek ikusten zuten ahalegin hori eta lagundu behar zitzaizela. Orduan nabaritzen zen asko».

Programa martxan jarri, eta lehen unetik handitu zen euskararen erabilera, jendearen kontzientziak eraginda. Gero, etenaldia egin zuten ikusteko ea metodologia efektiboa zen euslerik ez zegoenean.

«Nabaritzen zen euslea zegoenean euskarak leku gehiago zuela bai lan kontuetan eta bai kontu informaletan ere. Programa lagatzean jaitsi egin zen, baina ez hasierako mailara». Kontu-hartzailearen ondorioa hau da: «Eusle metodologiak laguntzen du, funtzionatzen du, baina ez du lortzen joera erabat aldatzea. Gauza gehiago egin behar dira. Pauso oso garrantzitsua litzateke euskaraz hitz egin ez baina ulertzen dutenek esango balute: *‘Háblame en euskara’*».

Gainontzeko sailetara zabaldu
Oñatiko Udalean esperientzia gehiago ere egin dituzte euskara bultzatzeko, Urrezko Bikain ziurtagiria lortzea tartean. Xabier Zabaleta euskara teknikaria da eta, lankideak bezala, gustura gelditu zen Euslerekin. Halere, arazo batzuk ikusten zituen. Adibidez, hamabost lagunekin talde honek euskaraz gehiago egiten zuen, baina zer gertatzen zen bertze sailekin? Bertze sailetako langileekin ere erlazioa zutenez, berriro agertzen zen gaztelaniarako joera.

Hortaz, gainontzeko udal langileekin ere antzeko esperientzia bat abiatu zuten. 32 langilerengana zabaldu zen eta gorabehera gehixeago izan ziren. Eusleren baldintzetako bat da taldekideen %80ak izan behar duela parte hartzeko borondatea eta justu samar ibili ziren, «ez kontra zeudelako, beharrik ikusten ez zutelako baizik».

Zabaletak dioenez, programa honek taldea egotea eskatzen du. «Norbere erabakiek indarra izateko taldea behar dute atzean. Talde hori naturala denean eta konpromisoa hartzen duenean, oso ondo funtzionatzen du. Aldiz, taldea gehiago zabal-tzen bada, ez bada hain trinkoa, gehiago kostatzen da», adierazi du. Halere, ariketa ona izan da. «Kontzientzia hartzeko balio izan du»



Elhuyar Aholkulari-
tzak egin zien es-
kaintza. Euskararen
erabilera planak,
proiektuak eta he-
rritarren batzarrak
bideratzen laguntzen die honek.
«Gustatu zitzaigun eta horrega-
tik animatu ginen. Ez genuen
momentu batean ere kezkarik
izan. Beldur bakarra zen jendeak
eusle izan nahi ez izatea, baina
ez da egon arazorik», adierazi
digu Izaskun Izurieta Iurretako
Udaleko langileak.

«Hainbat bulego ditugu eta ez
gaude langile guztiak elkarre-
kin. Horrek baldintzatu gintuen.
Orduan, 11 lankidek parte hartu
genuen borondatezko ekintza
honetan, harreman handia dau-
kagun bi sailetako kide guztiok:
Gobernazio saila eta Kontu-har-
tzailetza».


2015-2016 epealdirako aurkez-
tu zieten programa; otsail bate-
an hasi ziren eta azkeneko emai-
tzak irailean jaso zituzten.
«Lehenengo txanda lau aste
izan ziren jarraian jarduera hau
egiten; gero, hiru astetan eusle-
rik gabe egon ginen; ondotik,
berriro aritu ginen bi astez, hiru
asteko atsedena hartu genuen
eta beste bi astetan berriro mar-
txan egon zen jarduera. Azkenik
emaitzak jaso genituen».

«Oso pozik eta harro gaude»

Balorazio ona egin zuten bukatu
zenean: «Lehenengo eta behin,
jendea animatu egin zen boron-
datezko lan honetan. Guztira
zortzi astetan egon zen ekintza
martxan eta oso emaitza positi-
boak ikusi genituen. Hasieran,
gure euskararen erabilera maila
%78koa zen. Hiru astetako atse-
denaldiaren ondoren %84ra igo
zen eta azkenengo fasea amaitu-
ta %81ean finkatu zen. Oso po-
zik eta harro gaude. Hau udal
euskalduna da, baina nabaritu
genuen esfortzu batekin gehi-
txoago egin ahal dela».

Eusle metodologian, kide guz-
tiek euskara ulertu behar dute.
Hori da baldintza bat. Bestalde,
taldea ados egon behar da parte
hartzeko, %80a gutxienez, eta
hemen %100a egon zen prest.

Izurietaren iritziz, «konstan-
tzia» garrantzitsua da hizkuntza



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

«Euskaraz segitu behar duzula barneratzen duzu eusle zarenean»

IZASKUN IZURIETA

IURRETAKO UDALA

«Laneko denboratik ez du apenas ezer
hartzen eta konturatzen zara eragiten
duela». Hitz horiekin animatzen du
Izaskun Izurietak esperientzia probatzera.

Maidar Iantzi Goienetxe

gaude pertsona batzuk berez
eusleak garenak, baina eusle
izendatzeak esaten dizu adiago
egon behar duzula. Elkarriketa
batzuk erdaraz badoaz erdaraz
egin zenezake agian, eta, eusle
izatean, barneratzen duzu
gehiago euskararen mantendu be-
har duzula. Gainera, inork ezin
dizu exijitu erdaraz erantzute-
ko. Halako konpromisoak inpor-
tanteak dira».

«Kontuz, erdaraz zabiltzal!»

Taldearen babesa aunitz senti-
tzen da. Kontzientzia ere bai.
«Badakizu aste horietan progra-
mara gaudela zuzenduta. Ez du
lanik ematen. Bost minutuko fi-
txa bete behar duzu astean
behin. Ez da ezer. Baina bai bar-
neratzen duzu esperientzia be-
rri batean zaudela. Nik hori na-
baritu nuen lankideengan. 'E,
kontuz, erdaraz egiten zabiltzal'
esaten zion batek besteari».

Beren artean erdaraz egiten
zuten banaka batzuek arraro
sentitu gabe euskaraz mintza-
tzeko ohitura hartzea lortu dute.
Esperientzia bukatu eta hala se-
gitzen dute. «Bat bada ere inpor-
tantea da, kosta egiten delako
aldatzea. Badago kide bat berezi-
ki ahal den neurrian eta bere
mugekin baina euskaraz egiteko
ohitura hartu eta eusten diona».

Ohituretan eragiten jarraitu

2016-2017 epealdian metodo-
logia berdina erabiltzen jarraitu
dute, baina udal barrura begira,
ez Soziolinguistika Klusterreko
ikerketan. Jende gehiagok parte
hartu du, Hirigintza saila ere
sartu da, eta hor ere emaitza
onak lortu dituzte.

«Igartzten da kontzientzia
apur bat dagoenean, proiektua-
ren barruan sartuta dagoela da-
kienean, jendea gehiago saia-
tzen dela. Esperientzia ona izan
da, nahiz eta ez den argitaratu.
Gure barnekoa izan da, ohiture-
tan eragiten jarraitzeko».

Lantokiak Eusle metodologia
probatzera animatuko lituzte
Izaskun Izurietak, «benetan
baietz. Eskatzen duen esfortzua
minimoa da, norbere laneko
denboratik ez du apenas ezer
hartzen eta konturatzen zara
pertsonengan eragiten duela».

ohiturak aldatzeko. «Hemen,
harremanak urte askotakoak di-
ra. Nahiz eta lan esparru batean
egon, duela hogeitaz urte hasi ba-
duzu harreman bat pertsona ba-
tekin erdaraz, hori egun batetik
bestera edo zortzi astetan alda-
tzea oso gaitza da, joera hori de-
lako. Baina konturatu ginen era-
gin ahal duela, agian harreman
pertsonalean ez baina lanekoan
bai. Eta zelan konpromisoa zen
bai idatziz bai berbaz eusleak
beti euskaraz erantzungo zuela,
pertsona batzuetan bai igarri ze-
la aldaketa, asko gainera».

Izaskunek berak ez zuen ino-
rekin gaztelaniaz egiteko ohitu-
rarik. «Borondate onez eusle
izateko pertsonarik euskaldune-
nak aukeratu genituen eta
behin programa bukatutakoan
konturatu ginen beharbada eus-
leak ez dutela izan behar euska-
raz aritzea hain finkatuta edo
barneratuta duten pertsonak.
Eusle izendatzen zaituztenean
baduzu aukera ezetz esateko,
baina bai pentsatzen dut eragin-
korragoa izango litzatekeela
eusleak horrenbesteko ohitura-
rik ez baleuka euskaraz hitz egi-
teko edo idatzeko». Irudipen ho-
ri izan zuten Iurretan, Oñatin
bezalaxe.

Oñatiko Paskual bezala, eusle
izan zen Izaskun. «Hemen ba-